



2002/11/05eko prentsa-oharra

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIt)**2002ko hirugarren hiruhilekoa**

EUSKAL AE-KO TXIKIZKAKO SEKTOREKO SALMENTEK % 4,6KO HAZKUNDE NOMINALA IZAN ZUTEN 2002KO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN

Datu horiekin, lehenengo bederatzi hilabeteetako hazkunde nominal metatua % 1,9an kokatu da.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2002ko hirugarren hiruhilekoan, salmentak % 4,6 igo dira, kopuru nominaletan, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, Eustatek emandako datuen arabera. Hazkunde nominal hori, kopuru errealetan, % 2,5eko garapen positiboa da.

Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan, hazkundea % 1,9koa izan da kopuru nominaletan, eta % -0,4koa kopuru errealetan.

URTE ARTEKO HAZKUNDE TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2000	III	0,7	-0,3	2,8
	IV	1,4	3,3	-2,8
2001	I	2,6	3,4	0,7
	II	1,8	7,0	2,9
	III	-0,5	0,2	-1,8
2002	IV	-2,0	-2,9	0,0
	I	-1,1	-1,7	0,4
	II	-2,4	-3,6	0,1
	III	2,5	2,6	2,4

Iturria: EUSTAT

Gune ertain eta handietako txikizkako salmentek (ez-espezializatua) % 5,5eko hazkunde nominala izan dute hirugarren hiruhilekoan. Prezioen igoeraren eragina kendu eta gero, urte arteko tasaren aldakuntza % 2,4koa da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatua) salmenta nominalak % 4,1 igo dira 2002ko hirugarren hiruhilekoan, 2001eko hirugarren hiruhilekoaren aldean. Igoera nominal hori, prezioen igoeraren eragina kenduta, % 2,6koa da, kopuru errealetan.

Txikizkako merkataritzaren sektoreko landunak % 2,0 jaitsi dira 2002ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean. Txikizkako merkataritza espezializatuan edo tradiziozkoan jaitsi da enplegua (% -2,9), eta sektore ez-espezializatuan igo egin da (% 0,7).

Herrialde historikoka banatuz gero, hirugarren hiruhileko honetan, Gipuzkoan izan da txikizkako merkataritzako salmenta nominalen hazkunderik handiena; % 5,3ko urte arteko hazkundera izan da, txikizkako merkataritza ez-espezializatuaren hazkunderarengatik (% 9,1). Atzetik Bizkaia du, indize orokorreko aldakuntza positiboarekin (% 4,6) eta Araban, hazkundera neurritsuagoa izan da (% 2,4).

Hirugarren hiruhileko honetan, kopuru errealetan, salmentak hazi egin dira herrialde guztietan: Gipuzkoan % 3,3, Bizkaian % 2,6 eta Araban % 0,4.

2002ko lehenengo bederatzi hilabeteetan, txikizkako merkataritzaren sektorean ziren landunen aldetik, aurreko urteko aldi beraren aldean, gehikuntza metatua izan da Araban (% 5,1) eta Gipuzkoan (% 0,7); Bizkaian, aldiz, jaitsiera txikia izan da, % 0,8koa.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.:+34-945 017 500 Faxa:+34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.:+34-945 017 505 Faxa:+34-945 017 501 E-maila: Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	---